



ZALDIBIA ARRISKUAN

Biloreri irtenbidea

DESKONTAMINAZIOA ORAIN!

ZALDIBIAKO UDALA
(Gipuzkoa)

PRENTSA AURREKO ADIERAZPENAK

RAMON NAZABAL ZALDIBIAKO UDALEKO KUDEAKETA BATZORDEKO LEHENDAKARIA

BILORE ABIAN ZENEAN

Orain dela 5 edo 6 urte arte, itxi zuten arte, alegia, Bilorek 50 urte inguruan bizimodua aurrera ateratzea ahalbidetu zion familia askori.

Bere jarduerak sortzen zuen kutsadura zela eta, polemika iturri izan dugu beti Bilore. Isuriak Amundarain errekarra, airearen kutsadura, sortzen zuen zaratarekin bizi beharra,...

Kontuak kontu, Bilorek bazituen alde positiboak ere, goian aipatu dugunaz gain, udal aurrekontuari herriko ostalaritzari eta komertzioari mesede handia egin zien

BILOREREN ITXIERA

Oraingo krisia, aspalditxo iritsi zen Biloreko langileentzat, eta lantokia konpontzeko diru astotako inbertsioak egin ondoren, zuzendaritzak atek ixtea erabaki zuen, ondorioa?: Langileak kale gorrian!

BILORE ITXI ONDORENGO URTEAK

Txikizioa, axolagabekeria, arriskua, lotsagarria eta beste hainbat hitz erabili beharko genituzke egoera deskribatzeko.

Lantegiko langa parez pare irekita, leihoak, beirak eta paretak zintzilik..."legerik gabeko herrian sartzen zara" dioen kartela zintzilikatzea bakarrik falta dela ematen du. Baina denok dakigu hori ez dela horrela, komeni denean eta interesatzen denean hemen izaten baititugu "segurtasun indarrak" legearen izenean herriko jendea atxilotu eta kartzelaratzeko gertu.

Ettxerik gabekoen bat-bateko bizileku eta kabi bihurtu zena, langabeen bizimoduaren aringarria, negozioarako aukera ondo aprobetxatzen dutenena,...benetako "sakeorako" gune bihurtu da Bilore.

ESKU ARTEAN DUGUN ARAZOA

Bilore enpresa likidatzeko lana 3 sindikoren esku dago, baina kasua epaitegietan omen dago eta beraz epaile baten esku dagoela diote iristen zaizkigun informazio apurrek, eta zer? Sindikoek ezin omen dute ezer egin. Bien bitartean panorama honekin bizitzera kondenatuak al gaude?

Biloreko langile ohiek, bizitza guztian lanean aritu eta esku hutsik kale gorrian daudenak, euren egoeraz inpotentziaz hitz egiten zuten, baita Biloren gaur egun agerian geratzen ari diren sustantzi eta materialez, Amiantoa, Azufrea, azido sufurikoa, azido sufuriko oleoa,

Zaldibiako Udaletik eman diren pausoak hauek dira:

- Biloreko langile ohiekin bilera, hauek, Biloreko zorra kudeatzeko sorturiko batzordeko sindikoen ordezkari batekin bertaratu ziren eta enpresak duen zorraren berri eman ziguten.



ZALDIBIA ARRISKUAN

Biloreri irtenbidea

DESKONTAMINAZIOA ORAIN!

ZALDIBIAKO UDALA

(Gipuzkoa)

- Biloreko zorra kudeatzeko ardura duten beste bi sindikoekin egindako bigarren bilera batean, egoera orokorraren berri eman ziguten. Epaketak, salaketak, akziodunen arteko liskarrak, ...
- Hirugarren bilera batean, sindikoei Bilore enpresa barruko txatarra Usabiaga enpresari saltzeko egindako akordioaren berri eman ziguten eta Usabiaga lanean hasi zen.
- Ondorengo egunetan, gauez, *gaueko langileak (lapurrak)* lan egiten zuten eta egunez Usabiaga enpresakoak.
- Usabiaga trakets xamar hasi zen lanean eta Udaletik neurri zuzentzaileak ezarri zitzaizkion eta lanean jarraitu zuen neurriak beteaz. Garai horretan Amondarain errekarra isuria egon zen. Zehazki nola eta nork eragindakoa zen jakiterik izan ez bazen ere, Ingurumen sailak Usabiaga enpresari isuna jarri eta lan egiteko baimena kendu zion.
- Usabiagak Bilore uztearekin batera, gaueko *langileak* hiru errelebotara hasi ziren lanean, gau eta egun; jai eta aste.
- Duela 10renbat egun, gertaera larri bat izan zen, herrian zehar usain jasan ezin bat eta Bilore inguruan ke beltza zabaldu zen. Langile ohiek azaldu zigutenez, amiantoak su hartu omen zuen hodi batzuk moztzen ari zirenean, gure ezjakinean larritu egin ginen.
- Gaur egun **Ingurumen sailak, Jaurlaritzak eta Diputazioak beste alde batera begiratzen dute.**

ZALDIBIA ARRISKUAN, BILORERI IRTENBIDEA

NON DAGO HORRELAKO EGOERARI AURRE EGIN BEHARKO LIOKEEN ADMINISTRAZIO AGINPIDEDUNA?

Ingurumen sailak, kutsatutako lur eremu izendatu zuen Bilore. Nola eta nori dagokio egoera hau kudeatzea?

DIPUTAZIOA, JAURLARITZA ITSU, MUTU ETA GOR. Gure ustez, administrazioari dagokio horrelako egoerak kudeatu ahal izateko bitartekoak jartzea, baina oraingoz inork ez omen du ardurarik.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA eta EUSKO JAURLARITZARI ESKAERA

Otsailaren 3an Zaldibian buruturiko Udal-herri batzarrean erabakitakoarekin jarraituz, **sinadura bilketa abiatuko du Zaldibiako Udalak Gipuzkoako Diputazioari eta Eusko Jaurlaritzari Bilore deskontaminatzea eskatzeko.**

Horrekin batera batzarrak eta mobilizazio berriak antolatuko ditu Udalak